Bestelako Xedapenak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

80

EBAZPENA, 2010eko azaroaren 24koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, Kanpo Harremanetan eta Kanpoko Euskal Gizatalde eta Etxeen eremuan pertsonak espezializatzeko bi beka luzatzeko dena; beka horiek 2009an esleitu ziren.

Irailaren 30eko 221/2003 Dekretuan –Kanpo Harremanetan eta Kanpoko Euskal Gizatalde eta Etxeen eremuan pertsonak espezializatzeko bekak arautzeko dena, hain zuzen– eta beka horien 2009ko urriaren 28ko deialdi ebazpenean ezarrita dagoenarekin bat etorriz, Kanpo Harremanetan eta Kanpoko Euskal Gizatalde eta Etxeen eremuan pertsonak espezializatzeko bekak esleitu ziren, 2009ko abenduaren 28ko ebazpenaren bidez.

Ondoren, 2010eko urtarrilaren 14ko eta 2010eko otsailaren 4ko ebazpenen bidez, zenbait uko egite onartu eta beste pertsona batzuk izendatu ziren gelditzen zen denborarako eta tarte horri zegokion zenbatekoarekin.

221/2003 Dekretuaren 3. artikulua oinarri hartuta, Nora Unzueta San Martinek eta Natalia Ruiz Corresek luzapena eskatu dute horretarako bidezko txostena aurkeztuz. Eskaera kontuan hartuta, irailaren 30eko 221/2003ko Dekretuaren 7. artikuluan ezarritako Aukeraketa Batzordeak esleitutako bekak beste hamabi hilabetetan luzatzeko proposamena aurkeztu du.

Horregatik guztiarengatik, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Kanpo Harremanetan eta Kanpoko Euskal Gizatalde eta Etxeen eremuan pertsonak espezializatzeko bekak luzatzea Nora Unzueta San Martini eta Natalia Ruiz Corresi beste hamabi hilabetetan.

Bigarrena.– Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du; hala ere, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke organo berean hilabeteko apean; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko apean. Epeok ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko azaroaren 24a.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia,
GUILLERMO ECHENIQUE GONZÁLEZ.

Otras Disposiciones

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

80

RESOLUCIÓN de 24 de noviembre de 2010, del Secretario General de Acción Exterior, por la que se prorrogan dos becas de especialización de personas en el ámbito de las Colectividades y Centros Vascos en el exterior adjudicadas en 2009.

De conformidad con lo establecido en el Decreto 221/2003 de 30 de septiembre, por el que se regulan becas de especialización de personas en el ámbito de las Relaciones Exteriores y de las Colectividades y Centros Vascos en el exterior, y en la Resolución de 28 de octubre de 2009, de convocatoria de las mismas, por Resolución de 28 de diciembre de 2009 se adjudicaron las becas de especialización de personas en el ámbito de las Colectividades y Centros Vascos en el exterior.

Posteriormente, por Resolución de 14 de enero de 2010 y Resolución de 4 de febrero de 2010 se hacen públicas renuncias y se nombran nuevas personas adjudicatarias de las becas por el tiempo que restaba y el importe equivalente a dicho periodo.

En base al artículo 3 del Decreto 221/2003, Nora Unzueta San Martin y Natalia Ruiz Corres han solicitado la prórroga adjuntando el informe procedente. En vista de las solicitudes, la Comisión de Selección designada por el artículo 7 del Decreto 221/2003 de 30 de septiembre, ha elevado la correspondiente propuesta de prórroga de las becas para otros doce meses.

Por todo lo cual,

RESUELVO:

Primero.– Prorrogar a Nora Unzueta San Martin y Natalia Ruiz Corres las becas de especialización en el ámbito de las Colectividades y Centros Vascos en el exterior, por un período de doce meses.

Segundo.– Contra la presente Resolución, que agota la vía administrativa, se podrá interponer recurso potestativo de reposición, ante el mismo órgano, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación, o bien recurso contencioso-administrativo, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de noviembre de 2010.

El Secretario General de Acción Exterior,
GUILLERMO ECHENIQUE GONZÁLEZ.